OTXULO 4512K, 2004-6-11

A2058



**Larratxo**

# «Euskal Herritik kanpora maizago aritu nahi dugu»



Ezkerretik eskuinera, Mari Jose Fragoso, Ana Goikoetxea, Mari Angeles Gonzalez eta Marian Fernandez.

**Larunbatean, hilak 12, Emakume Ausartak antzerki talde amateurrak "Un Busto al Cuerpo" lana taularatuko du Altza kultur etxean. Auzoko taldeak hamar urte egin ditu aurten. Mari Jose Fragoso taldekidearekin hitz egin dugu.**

**Zer moduz joan dira hamar urte hauek?**

Pozik gaude. Taldearen hazia Casares kultur etxean egindako antzerki ikastaro bat izan zen. Antzezle izan nahi genuen zenbait emakumek parte hartu genuen bertan, eta haietako batzuek osatu genuen taldea. Alde ona gozamena da, antzeztea asko gustatzen zaigulako. Eta pena da ez dugula nahi adina antzezpen egiten. Taldea sortu genuenean, ez genion gure buruari helburu zehatzik jarri; antzerkian aritu nahi genuen, besterik ez. Urtero, gutxienez, emakumearen aldeko asteetan eta Larratxoko festetan aritzen garenez, eta dirulaguntzak jasotzen ditugunez, urtero lan berri bat antzeztea lortu dugu.

**Aurten "Un Busto al Cuerpo" antzezten ari zarete. Zer kontatzen duzue bertan?**

Obra ironikoa da. Estetikaz eta modaz dihardugu; gizarteak nola baldintzatzen gaituen janzkeran, bizimoduan, kirurgia estetikora jotzerakoan... Umore garratza da nagusi. Hau da, ikusleek barre egiten dute, egoera barregarri samarrak irudikatzen ditugulako, baina komedia denik ere ez nuke esango.

**Urtero Larratxoko jaietan antzezpena egiten duzue. Ondoren, parrandan ibiltzen al zarete?**

Bai, bueltatxo bat ematera ateratzen gara; dantzaldian parte hartu eta mokadutxoren bat hartzen dugu. Giro polita izaten da auzoan.

**Aurten bi agerraldi egingo dituzue festetan. Izan ere, antzezlanaren aurreko egunean, ostiralean, bakarrizketak eskainiko dituzue...**

Antzezleok, bakarrizketetan, oso harreman estua izaten dugu jendearekin; ikusleekin hitz egiten dugu. Finean, jendearen jarrera ikusteak eragina du antzezpenean. Antzerki obretan dena eskenatokian gertatzen da, eta ikusleek ez dute hainbeste eraginik.

**Eta geroari begira, zer?**

Euskal Herritik kanpora maizago aritu nahi dugu. Aurten Eibar eta Antzuolan izan gara, eta Bizkaian eta Araban ere antzeztu izan dugu, baina Euskal Herritik kanpora ere joan nahi dugu. Adibidez, Kantabriako Torrelavega herriko antzerki amateur lehiaketan parte hartzen saiatu gara aurten, eta ez dugu lortu. Dena dela, datorren urtean berriro ere ahalegina egingo dugu.

ALBAITARITZA KLINIKA
ALTZA
LARRIALDIAK (24 ordu) Tel.: 608 676435
Ordutegia. Astegunetan: 10.00-13.00 eta 16.30-20.00
Larunbatetan: 10.00-13.00
Larratxo pasealekua 32, behea • Tel. eta Faxa: 943 396839

IRALE
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
Larratxo pasealekua 51-53 • Tel.: 943 404610

Argitalpen honen edizioan lankide:
kutxa
gizarte ekintza


Eli Gorostegi

## Egitaraua

**Ostirala 11**

**11:00** Toka, bote eta igel-toka txapelketa auzoko jubilatuentzat. Larratxoko eskolan

**15:00** Musika giroa eta barrakak

**17:30** Auzoko elkarteek txokolate eta opil jatea egingo dute haurrentzat, Josu Artetxe plazan

**18:30** Kiki eta Koko pailazoak, Josu Artetxe plazan

**19:30** Erraldoiak, hankaluzeak eta buruhandiak Larratxoko kaleetan ibiliko dira Amara dultzainari taldearekin. Trintxer eta Mariaren Bihotza abesbatzek kontzertua eskainiko dute Jesus Nazaretekoa elizan

**20:00** Zezensuzkoa umeentzat

**20:30** V. Koadrila Jaitsiera Burrunbada taldearekin

**23:00** Danborrada Jatorrenak txarangarekin

**23:30** Emakume Ausartak antzerki taldearen bakarrizketak eta Orquesta Avenida

**00:00** Bilboko Motorsex eta Gasteizko Los Padrinos taldeen kontzertua, eskolako patioan. Dantzaldia, Josu Artetxe plazan. Orquesta Avenidarekin

**Larunbata 12**

**10:00** I. Umeen Herri Krosa, Larratxoko parkean

**11:00** Aiton-amonentzako hamaiketakoa, Gurea zahar etxean, Jatorrenak txarangarekin. Toka eta bote txapelketak, Galeoi tabernaren ondoko plazan

**12:30** Herrerako Kimushubi Borroka Arteen Eskolako ikasleen erakustaldia, Josu Artetxe plazan

**15:00** Musika giroa eta barrakak

**16:00** Haur jolasak Zabuen plazan: puzgarriak eta zezen mekanikoa. Futbol Txapelketako finalak, eskolako patioan. Ondoren, garaikurrak banatuko dituzte

**16:30** Mus txapelketa, Lanbroa tabernan

**17:00** Txotxongiloak Irrintzi taldearekin. Ondoren, haur jolasak izango dira frontoian

**17:30** VII. Sagardo Eguna eta sardina jatea, Josu Artetxe plazan. Erromeria Nerea, Maite eta Ilazki trikitilariekin

**18:00** Aiton-amonentzako dantzaldia, Gurea zahar etxean, Hodei orkestrarekin

**20:00** Erraldoiak, hankaluzeak eta buruhandiak auzoko kaleetan ibiliko dira Amara dultzainari taldearekin. Emakume Ausartak taldeak "Un busto al cuerpo" lana antzeztuko du Altza kultur etxean (Larratxo 55)

**23:45** Zezensuzkoa

**00:00** Lola's Club eta Mal de Ojo taldeek kontzertua emango dute eskolako patioan. Dantzaldia, Josu Artetxe plazan. Miramar Berri orkestrarekin

**02:00** Zezen mekanikoa, Josu Artetxe plazan

**Igandea 13**

**09:00** Diana Amara dultzainari taldearekin

**11:00** Haur danborrada Jatorrenak txarangarekin

**11:30** Esku pilota partidak, Jose Angel Gastesiren omenez

**12:30** Herri-kirolak, eskolako patioan

**13:30** Poteoa eta kalejira Nerea, Maite eta Ilazki trikitilariekin

**14:30** Zikiro jatea, Josu Artetxe plazan

**17:30** Erraldoiak eta buruhandiak auzoko kaleetan ibiliko dira Amara dultzainari taldearekin

**18:00** Coversion eta Hiverland taldeen kontzertua

**19:30** Jota jaialdia, Tuterako Raimundo Lanas taldearekin, Josu Artetxe plazan

**21:30** Azken suziria


Centro Odontologico Clinica Dental Larratxo

**Odontologia etxeak**

Odontologia Inplanteak Protesiak
Ortodonzia Peridonzia Garbiketak

Azterketak eta doaneko aurrekontuak
Gure beherapenak eta finantziabideez galdetu

Centro Odontologico Egluia
Egia 19 behea
Tel.: 943 29 13 50

Centro Odontologico Gros
Zabaleta 37 behea
Tel.: 943 32 32 52

Centro Odontologico Larratxo
Larratxo pas. 30 behea
Tel.: 943 40 14 47

IMANOL
HARATEGIA URDAITEGIA
Gure baserrietako haragia
Txirrita bertsolaria 14 • Tel.: 943 392940 • DONOSTIA

L
EUSKARA PRAKTIKAK

orain duzu aukera
euskara praktikan jartzeko

matrikula zaltoz udako ikastero eta barnetegietan

ikaelkar ulertzeko

Iruñea 948 222 246
Gasteiz 948 154 341
Errioxa 945 601 087
Lesaka 948 637 796

NARRIKA
taberna
Narrika 16
Tel.: 943 427327